

### 3. FASEA: ITXIERA

**Kolaborazioko Egoerari amaiera ematen dion etapa.** Ikaskuntzak eta emaitzak bateratzen dira, prozesua eta egindako aurrerapenak ebaluatuz eta egin daitezkeen urrats berriak proiektatuz. Landutakoa paketatuz, argitaratu eta aurkeztu. Eta, gainera, bizitakoa ospatu eta parte-hartzaileen artean partekatutakoa eskertu.

- **Ikaskuntzak eta lortutako emaitzak identifikatzea eta paketatzea**, parte-hartzaileek zein beste pertsona batzuek goza ditzaten. Kontakizunetik abiatuta, modu ordenatu eta sistematizatuan jasotzea kontserbatu beharreko materialak, lanarekin jarraitzeko edo proposatutako irtenbideak inplementatzeko edo transferitzeko. Kontua ez da dokumentazio zehatza egitea, baizik eta ulermena erraztea eta balioa ematea.
- **Sortutako materialak argitaratzea eta zabaltzea** (online espazio eta kanal propioak izango dira horretarako bitarteko aproposenak, baina jorratutako gaiarekin lotutako beste hedabide eta biltegi batzuetan ere partekatu ahal izango da, xede-publikoa, inpaktua, harremanak eta transferentzia-aukerak zabaltzeko).
- **Dibulgazio- eta ospakizun-izaerako aurkezpena.** Amaitzeko funtzioa du, taldearen barruan zein kanpoan, landutakoari balioa emateko eta partekatzeko. Aurkezpen hau antolatzea lankidetzaren beste zati bat da, eta interesgarria da parte-hartzaile guztiak horretan nolabait inplikatzeko.
- **Esperientziaren partaidetzazko ebaluazioa**, hasieran ezarritako helburuetan eta adierazleetan oinarrituta, eta prozesuan zehar sortu diren egokitzapenak, txertaketak edo desbideratzeak kontuan hartuta. Positiboa dena adieraztea, baina baita arazoak eta hobetu beharreko arloak ere.
- **Jarraitutasun-modu posibleak planteatzea**, landutakoaren gaineko garapen- eta inplementazio-fasean, prozesuan zehar agertutako gai berrietan edo taldeak adierazitako beste interes batzuetan oinarrituta.